ttipi ttapa

428

2006ko abuztuaren 10 • XXVI. urtea



## Zezenak dira, beltz-beltzak dira harrapatzen bazaitu!

04-27

Urtero bezala, oporrak hartu aitzinetik, inguruko herrietako besten egitarauak dituzue udako ale honetan: Etxalar, Arantza, Zugarramurdi, Amaiur, Lekaroz, Oronoz, Arraioz, Donamaria, Zubieta, Ezkurra, Goizueta, Areso, Legasa eta Narbarte. Itzalean edo eguzkitan, urean edo idorrean, etxean edo bestaz besta, ongi pasa uda.




AROZ - BERRI


Lorpen
Innovative Technical Socks
Etxalartik...Mundura!
BESTA ZORIONTSUAK PASA!!

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Otsoa ardi larruz jantzitzen denean

Gutun hau, aurreko Tti-pi-Ttapan agertzen zen «Demokrazia Lesaka-rentzat» gutunari zuzenketa eginez hasiko dut, hots, aurrekoan igorritako gutuna Herria Antzinera plataformak egina eta izenpetua zen, bertzela argitaratu bazen ere.
Behin zuzenketa hori eginda, San Ferminetan herrian bizitu dugunaren inguruko gogoeta ttiki bat igorri nahi diot irakurleari. Lehendabizi aipatu, nahiz batzuk bertze alde batera begiratu (urte guztian egin bezalaxe) bizi dugun egoera ez demokratikoa, ageri-agerian gelditu dela.
Egoeraren erantzule nagusia den Lesakako Udalak, azken urteetan egin duen moduan, herritarren interesei kasurik egin gabe eta zinegotzi eta alkate karguek ematen dieten boterea erabiliz, herriko bestak beraien nahien arabera joan daitezen saiatu dira.
Lehenbiziko egunetik beraien aurpegirik alaienarekin atera ziren. «beraienak» diren bestetaz gozatzera «bestak bai, politikarik ez» lemape patetiko eta hipokritan bat eginik guztiak.
Halaxe egin gainera, politika egun garratzitsu horietan alde batera utzi zuten: herriko kaletan zeuden aldarrikapenak kendu arazi zituzten (langilea mehatxatuz), herriko etxeko balkoian zegoen «Euskal Preso eta Iheslariak etxera!» banderola kendu zuten, uztailaren 7an San Fermin egunean Herriko Etxeko atea herritar batzuentzat itxirik mantentzeko agindua eman zuten (langilea mehatxatuz) eta nola ez, prozesioz-prozesio beraien kargu «ez politikoen» jabe direla ikusarazi ziguten herritar guztioi.
Behin politika baztertuta, legeari eman zioten bide, zuzenbidean dagoen herri bat baitute helburu. Inoiz ez bezala Lesakako Udalaren aginduz polizia Lesakako ostatu eta txoznetan barrena ibili zen isunak jartzen. Atzean, helburu politikoak gordetzen dituen agindu hau Lesakako ostalariak eta txoznak zigortzeko lehen pausoa da. Gure herriko besten izaerarekin bukatzeko lehen pausoa eman dute jada. Ondoren, faltsukeria eta gezurra erabiltzen ahalegindu dira, langileria eta herri mugimendua jipoitzea debalde aterako zailekoan. Bertzealdetik, bertako zein kanpoko komunikabideak erakutsi duten errealitatea ere ez dator bat egun horietan Lesakan bizitu genuenarekin. Lesakan eta Euskal Herrian orohar bizi ditugun momentu garrantzitsu zein itxaropentsu hauetan egoerak eskatzen duen mailan egotea espero dut, hau da, informatu behar duenak informatu dezala. Zer helbururekin ezkutatzen ari da informazioa?
Hagitz oker dabiltza ordea, ez gaituzue engainatuko! (…)
Bukatzeko erran, gutun honek helburu bikoitza duela: batetik, San Ferminetan bizitu dugun errealitatea salatzea eta bertzetik egoera hauek gehiago eman ez daitezen jendearen kontzientzian eragitea. Edozein egoera koiunturalen gainetik, gure herriaren interesak daude jokoan, San Ferminetan bezalaxe urte guztian.
(…)

**Iban MAIA ORMAZABAL**
**(Lesakako Herria Antzinerako kidea)**






# Antonio OSCOZ ITURRIA

**2006ko uztailaren 22an hil zen Hernanin, 65 urte zituela.**

Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
beti izanen zaitugu gure
bihotzean.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**TIRADA:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Jaione Otxandorena, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Xan Harriague, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea…
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 e |
| Espainia | 30 e |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 e |
| Ipar Euskal Herria | 50 e |
| Europa | 50 e |
| Amerika | 108 e |

Baztan, Urdazubi, Malerreka

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**






















# ETXALAR

## abuztuaren 14tik 18ra

### Abuztuak 14 Astelehena

**19:45ean:** Agerraldi ixila "Euskal Presoak Euskal Herrirat" lemapean.
**20:00etan:** Altxaferua, txistulariak, trikitilariak, BETI-ALAI txaranga, buruhaundiak eta kankailuak. Txanpaina eta goxokiak banatuko dira.
**21:30ean:** Herri afaria frontonean. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 10ean akautuko da. Epez kanpo erosten duenak 3€gehiago ordaindu beharko ditu. Afaria txarangak girotua izanen da.
**0:30etik 4:00etara:** Dantzaldia MODESTOrekin. BETI-ALAI txarangak atsedenaldietan eta akaberan karrikak animatuko ditu.

### Abuztuak 15 Asteartea Andremari Eguna

**10:30ean:** Argisoinuak txaranga, buruhaundi eta kankailuekin.
**11:30ean:** Meza Nagusia.
**12:30ean:** Herriko dantzarien saioa. Ondotik, Kultur Etxean hameketakoa dantzari eta musikarientzat. Ondotik gaiteroak plazan.
**18:30ean:** Herri kirolak: Nafarroako koxkor biltze txapelketa. Aizkora eta lasto altxatze erakustaldia.
**19:30ean:** Bertso saioa: Angel M ª Peñagarikano, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.
**20.30etik 22:00etara:** Dantzaldia IRATS taldearekin.
**0:00etik 4:00etara:** Dantzaldia IRATS taldearekin. Ondotik, atsedenaldian eta akaberan BETI-ALAI txarangak karrikak animatuko ditu.

### Abuztuak 16 Asteazkena Haurren Eguna

**11:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara:** Haurrendako joku parkea: puzgarriak, dino-choper-ak, zezen mekanikoa…
**14:00etan:** Asau ttiki.
**17:00etan:** XIV. Mus Txapelketa bi mailatan: Gazteak 16 urte arte; Haundiak 17 urtetik goiti. Partiduak bi txikotara jokatuko dira. Parte hartu nahi dutenek, 17:00ak baino lehen eman beharko dute izena plazan bertan.
**19:00etatik 21:30era:** Patxi Perez eta Konpainia "Dantza Piko" animazioarekin. Zahar eta gazte, denak dantzan trebe!!!
**00:00etatik 03:00etara:** Disko festa. DJ batek nahi den musika paratuko du. Dantzan jarraitzeko aukera ederra!!!





### Abuztuak 17 Ortzeguna

**10:30ean:** Argi soinuak txaranga, buruhaundi eta kankailuekin.





**11:30ean:** Etxalarko haurren XX. esku pilota txapelketaren finala.
**12:30ean:** BELATE elkarteko afiziona-tuen pilota partidak: Pikabea-Mitxelena / Elurbe-Huarte-ren aurka.
**13:30ean:** Herriko haurren trikitixa emanaldia.
**17:00etan:** Arrantzaleen joko eta jolasen jaia. KULKI taldearen eskutik.
**19:00etan:** Herriko gazteen herri kirol desafioa. Aurten ere herriko bi talde elkarren artean lehiatuko dira. Ondotik joku bat prestatuko dute nahi duenak parte har dezan. Iaz orga bueltaka ibiltzea, eta aurten zer ote?
**20:00etatik 22:00etara eta 0:00etatik 3:00etara:** Dantzaldia IRATS taldearekin. BETI-ALAI txarangak atsedenaldietan eta akaberan karrikak animatuko ditu.

## Abuztuak 18 Ortzirala
## Asau eta Jubilatuen Eguna

**10:30ean:** Argi soinuak txaranga, buruhaundi eta kankailuekin.
**12:30ean:** BELATE elkarteko afizionatuen pilota partidak: Zubieta-Elizalde / Cerezo-Arraztoaren aurka. Ondotik mus eta pilota txapelketen sari banaketa.
**14:00etan:** Jubilatuen bazkaria. Herriko Ostatuan.
**14:00etan:** Asau ermitako zelaian. La Basque ostatutik txarangarekin batera denak elkarrekin abiatuko dira ermitako zelairat.
•Txartelak hartzeko epea abuztuaren 14ean akautuko da. Epez kanpo erosten duenak 3 euro gehiago ordaindu beharko ditu.
• Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko asauan gertatzen ahal diren istri-


























# ARANTZA

abuztuaren 14tik 18ra





## Abuztuak 14 Astelehena

**20:00etan:** Herritar eta ostatuek egindako tortillen aurkezpena.
**20:30ean:** Altxaferua botako da Herriko Etxetik. Ondoren luntxa Herriko Plazan eta kalejira herriko musikari eta Gaur-Erdi txarangarekin.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia EGAN taldearekin.

## Abuztuak 15 Asteartea Amabirjinaren Eguna

**Goizez:** Argisoinuak edo dianak herriko musikariekin eta Gau-Erdi txarangarekin.
**11:00etan:** Meza Nagusia eta prozesioa amabirjinarekin herriko karriketan.
**12:30ean:** Herriko dantzarien emanaldia eta omenaldiak:
Herriko zaharrenari.
Herriko txirrindularia den ASIER APEZETXEA IPARAGIRRE, etab.
**19:00etan:** Pilota partidak: Imanol MITXELENA-Beñat MITXELENA;
Joseba PIKABEA-Joseba MADARIAGAren kontra.
ALZUGARAI – ERRANDONEA III / / BERRAONDO – ALMANDOZ
**Arratsaldez eta gauez:** GAUBELA taldearekin dantzaldia.

## Abuztuak 16 Asteazkena Haurren Eguna

**Goizez:** Argisoinuak edo dianak herriko musikariekin.
**Goizez eta arratsaldez:** Gaztelu puzgarriak eta haurrentzako jokoak.
**18 :00etan:** GORRITI eta bere animaliak Herriko Plazan.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

## Abuztuak 17 Ortzeguna

**Goizez:** Argisoinuak edo dianak herriko musikariekin.
**12:00etan:** LARRETXEA ANAIEN jokaldia herriko frontoian.
**18:00etan:** Herri kirolak : ARANTZA - BERROETA-IGANTZI.
**19:00etan:** "ALMA NAVARRA " NAFARROAKO JOTAK herriko plazan.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia Mikel SALABERRIrekin.

## Abuztuak 18 Ortzirala

**Goizez:** Argisoinuak edo dianak herriko musikariekin.
**11:00etan:** Ekaitza elkarteak antolatutako Herriko Pilota txapelketaren fi-









Joan den urtean Donato Larretxeak bota zuen besta hasierako txupinazoa. Ondotik, bortz egunez, txistulariak, prozesioa, dantzariak eta bertze hainbat ekitaldi ikusteko modua izan zen. Iaz bezalaxe, aurten ere herriko zaharrenari eta kirolariei omenaldia eskainiko zaie, Amabirjin eguerdiko dantzarien saioa-ren ondotik.















# ZUGARRAMU

## agorrilaren 14tik 18ra

















### Agorrilak 14 Astelehena

**10:00etan:** besta hasierako suziria eta ezkil joaldia. Ondotik eskea herri guzian barna KARLES eta XABI musikariekin.
**14:00etan:** bazkaria Herriko Etxean, eskean ibili direnentzako.
**16:00etan:** XIBA haurrentzat.
**17:30ean:** XIBA helduentzat.
**22:00etan:** Piperrada plazan, animatzen diren guzientzat.
**Atsalde eta gauean:** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

### Agorrilak 15 Asteartea Andremari Eguna

**11:30ean:** Meza Nagusia. Ondotik Herriko Etxealk aperitifa eskainiko du.
**12:30ean:** Donibaneko BEGIRALEAK dantza taldea arituko da plazan.
**17:30ean:** Frontis enpresako profesionalen arteko pilota partida: Ariznabarreta-Ruiz de Larramendi// Armendariz-Urdaniz-en kontra.
**18:30ean:** berriz ere Donibaneko BEGIRALEAK dantza taldea izanen dugu plazan.
**Atsalde eta gauean:** Dantzaldia ZIRIKA taldearekin.

### Agorrilak 16 Asteazkena

**12:00etan:** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna: basurdeak, zakurrak eta pottokak…
**17:00etan:** pailasoak haurrentzat.
**18:00etan:** Euskal jokoak: aizkolariak, harri altxatzaileak…
**21:00etan:** Andreen afaria Azketan.
**Atsalde eta gauean:** Dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin.

### Agorrilak 17 Ortzeguna

**10:00etan:** Plater Tiraketa.
**12:00etan:** Meza Hirugarren Adinekoek antolatua.
**12:00etan:** Zigante eta Buruhandiak karriketan barna.
**14:00etan:** Bazkaria Azketan hirugarren adinekoendako.





**16:00etan:** Ahate eta Gako Jokoa Urruñako HERBURU txarangak animaturik.
**20:00etan:** Euskal Dantzak denentzat PATXI PEREZ eta bere taldearekin.
**Gauean:** Dantzaldia IÑAZKI taldearekin.

### Agorrilak 18 Ortzirala

**Goizeko 8:00etatik aitzinerat:** Zikiroa prestatzen hasiko gara lezean.
**12:00etan:** Urruñako HERBURU txaranga eta Baigorriko Gaiteroak.
**14:30ean:** Zikiro Jatea lezean, Ezpeletako txaranga eta gaiteroek animaturik.
**19:00etan:** Larrain Dantza gaiteroekin

RDI





*Argazkiak: Margari ETXENIKEk utziak*

Francisco Arburua, Bartolo Etxenike, Juan Luis Erro eta Juano Arburua piperrada prestatzen. Pottoka gainean haurrak, tartean Xabi Bengoetxea, Beñat Aintziart, Mattin Villares eta Joxemi Bengoetxea. Aurten ere emanaldia eskainiko du Donibaneko Begiraleak dantza taldeak.

MARIXAN OSTATUA

ONGI PASA BESTAK!

F.J. ETXABE tailerrak

autoen konponketa

egoi bardot obregozo arkitektoa



BORTZIRI

UNSION ANAIAK

AKELARRE

elkarteak

besta zoriontsuak

opa dizkizue

zugarramurdiar

eta

bisitari guztiei

ONGI PASA

















# AMAIUR

## abuztuaren 14tik 20ra



### Abuztuak 14 Astelehena Bezpera

**20:00etan:** Su ziriak eta Ezkil-Jotzea. Txaranga herrian barna.
**21:00etan:** BAZTAN-ZOPAK txarangak eta Kristian ta Sebastianek alaitua.
**0:30ean:** Gaupasa GAUBELA taldearekin. Oharra: 3:30etan eta 6etan autobusa herriz-herri.

### Abuztuak 15 Asteartea Ama Birjin Egune

**10:00etatik aintzin:** Baztan-Bidasoako V. Ardi Erakusketa eta Lehiaketa trikitixaz alaitua.
**12:00etan:** Meza Nagusia. Gaztelu taldea kantuz.
**13:00etan:** Mutil-dantzak. Hamaiketakoa kanpoan bizi diren herritarrentzat. Goiz guztian zehar artisauak plazan.
**17:00etan:** Artzain-zakur desfilea Aleman anai-arrebek alaitua.
**17:30ean:** XXXI. Artzain-zakur lehiaketa eta Patxi Etxeberriaren II. Memoriala.
**19:30ean:** Perurena aita-semeak eta ondotik sokatira 4x4 plazan.
**21:00etan:** Dantzaldia HOLAKO taldearekin.
**22:30ean:** Mutil dantzak, muxikuak, gaita.
**23:30etik aintzin:** Dantzaldia HOLAKO taldearekin.

### Abuztuak 16 Asteazkena Haurren Egune

**11:30ean:** Haurren pilota partidek.
**14:00etan:** Haurren bazkaria.
**16:30ean:** Lehenagoko denboretako haur jokoak.
**18:00etan:** Eriz magoa.
**19:00etan:** Haurren txokolatada.
**20:00etatik 22:00etara:** Dantzaldia HOLAKO taldearekin.
**22:00etan:** Mutil-dantzak.
**23:30etik aintzin:** Dantzaldia HOLAKO taldearekin.

### Abuztuak 18 Ortzileria Zikiro-jate Egune

**11:00etan:** Pilota palako finala.
**12:30ean:** V. Boneta-jaurtiketa.
**14:00etan:** Zikiro-jatia Joxe Anjelek alaitua. Ondoren Karaokea eta kalejira askanbururet.
**22:00etan:** Mutildantzak, muxikuak, gaita…
**0:30etik 5:00etara:** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Oharra: 3:30etan eta 6etan autobusa herriz-herri.

### Abuztuak 19 Launbeta GazteenEgune

**Goizean:** Denak lo.
**17:00etan:** Eskuzko pilota partidek.
**18:00etan:** Sokatira + prueba konbinatuak.
**20:00etan:** Bizkaiko TALDE BATUAK dantza taldea. Ondoren Zardin ta ziztor jatia.











**22:00etan:** Mutildantzak, muxikuak, gaita…
**23:30ean:** Kontzertuek: ERRU GABE, KALAPITE + TALDE SORPRESA.
**0:30ean:** Gaupasa JALISKO BAND taldearekin.
**6:0etan:** Zinger-jatea monumentuan.
Oharra: Autobusa herriz-herri. Begiratu ordutegia.

## Abuztuak 20 Igendia
## Egun latza

**15:00etan:** Puske biltzea!!!!!
**21:00etan:** Afaria
**0:00etan:** Amaiurko kazerolada karriken barna bestei amaiera emateko.














# ORONOZ-MU

## abuztuaren 13tik 16ra



### Abuztuak 13 Igendia Bezpera

**17:00etan:** Herrikoen arteko mus zimizte txapelketa.
**20:00etan:** Altxaferoa eta ezkil jotzia. Ondotik, kalejira herriko akordiolariek alaitue.
**21:30ean:** Baztan Zopak.
**1:00etan:** Dantzaldia AGERRALDErekin. Musike akitu onduen, ongi lo iteko zinger jatia.

### Abuztuak 14 Astelehena Haurren Egune

**10:00etan:** Tanborrada herriko ttikien eskutik.
**12:00etan:** Haurrendako Xake txapelketa.
**14 :00etan:** Haurrendako bazkarie.
**16:00etan:** Karts eta puzgarriak, herriko frontonian.
**18:30ean:** Herriko pala txapelketako finala.
**20:30ean:** Dantzaldia NAIMA taldearekin.
**22:00etan:** Etxeko gizonek egindako patata tortile jatia.
**0:30ean:** Dantzaldia NAIMA taldearekin.

### Abuztuak 15 Asteartea Amabirjin Egune

**10:00etan:** Dianak.
**11:00etan:** Meza Nagusie.
**12:00etan:** Herriko haurrek eskeinitako dantza emanaldie. Ondotik herrikoendako luntxa.
**18:00etan:** Pilota goxuako finalak eta kalejira txarangak alaiturik.
**20:30etan:** Dantzaldia KIÑU taldearekin.
**0:30etan:** Dantzaldia KIÑU taldearekin.

### Abuztuak 16 Asteazkena Herriaren Egune

**10:00etan:** Dianak.
**12:00etan:** Partxis txapelketa.



**14 :00etan:** Herri bazkaria eta ondotik dantzaldia JOXE ANGELEN eskutik.
**20:30ean:** MARIATXIAK herriko plazan.
**22:00etan:** Txorizo eta gazta jatia.
**0:30ean:** Dantzaldia JOXE ANGELek eskeinie.

# UGAIRI





Garai bateko sokadantzarik ez da aurten dantzatuko Oronoz-Mugairiko bestetan. Hori bai, Herriaren Egunean herri osoa bilduko da bazkaltzera eta bazkalondoan, Joxe Angelen doinuekin dantzatzeaz gain, Mexiko aldeko Mariatxiak aditzeko, kantatzeko eta dantzatzeko modua ere izanen da.


















# EZKURRA

## abuztuaren 14tik 19ra



### Abuztuak 14 Astelehena

**21:00etan:** Bertso-afaria, Sorozabal eta Aitor Sarriegirekin.

### Abuztuak 15 Asteartea

**11:00etan:** Meza Nagusia.
**13:00etan:** Aizkora apostua Mindegia Arrospideren kontra.
**18:00etan:** Pilota partidak afiozionatuen artean
**Arratsaldez eta gauez:** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

### Abuztuak 16 Asteazkena

**10:00etan:** Plater tiraketa
**Goiz-arratsaldez:** Umeen parkea
**17:00etan:** Mus txapelketa
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia PANDORA taldearekin.

### Abuztuak 17 Osteguna

**Arratsaldez:** Herri kirolak, herrikoen gazteen artean.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzadia KUPELArekin.

### Abuztuak 18 Ostirala

**12:00etan:** Herriko paleta txapelketaren finalak.
**18:00etan:** Pilota partidak afizionatuen artean. **Arratsaldez eta gauez:** Dantzadia SONIDOS taldearekin.



### Abuztuak 19 Larunbata

**14:00etan:** Herri bazkaria, Aitor soinulari .
**18:00etan:** Aizkora apostua: Mindgia eta Telletxea- Rekondo eta Otaegiren kontra

# DONAMARIA

## abuztuaren 14tik 18ra



### Abuztuak 14 Astelehe-na

20:00etan: Altxaferoa. Ondoren trikitilariak auzoz auzo ibiliko dira.
21:00etan: ZOPAK Herriko Ostatuan.
Gauez: Dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeoilariarekin.

### Abuztuak 15 Asteartea

10:00etan: Argi soinuak.
11:30ean: Meza Nagusia. Ondoren Luntx Herriko Ostatuan.
18:00etan: Pilota Partidak: Lehenbiziko herriko pilotari gazteak eta gero Txaruta elkarteko pilotariak.
20:00etan: Ahare apostua.
Arratsaldez eta gauez: dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeilariarekin.

### Abuztuak 16 Asteazke-na

10:00etan: Argi soinuak.
11:30ean: Goiti-beherak.
13:00etan: Aizkora apostua: MINDEGIA-NAZABAL / ARROSPIDE-LARRETXEA
16:00etan: Herri Jokoak.
19:30ean: Bertso-poteoa. Bertsolariak: Julen Zelaieta, Jon Elizetxe eta Alazne Untxalo. Akordiolaria: Miguel A. Agerralde.
22:00etan: Afaria Herriko Ostatuan



bertsolariekin.
Arratsaldez eta gauez: Dantzaldia FIDELen eskutik.

### Abuztuak 17 Ortzegu-na

10:00etan: Argi soinuak.
11:00etan: Plater Tiraketa herrikoia.
Goizez eta arratsaldez: Haurrendako parkea (karts pista, Bufalo Bill eta puzgarriak).
17:30ean: Mus txapelketa herrikoia.
19:30ean: Patata Tortila lehiaketa herriko plazan. Bitartean sagardoa kupeletik «Txotx» egiteko aukera izanen da.
22:00etan: Afaria herriko plazan.
Arratsaldez eta gauez: Dantzadia IÑIGOrekin.
1:00etan: Mozorro Karaokea.

### Abuztuak 18 Ortzirala

10:00etan: Argi soinuak.
14:00etan: Herri Bazkaria. Bertsolariak:




















# ZUBIETA

abuztuaren 14tik 18ra



## Abuztuak 14 Astelehena
### Bezpera

**20:00etan:** Herriko txistulariak.
**21:00etan:** BAZTAN ZOPAK Herriko Ostatuan.
**00:00etan:** ARBOLA ALTXATZEA eta JOALDUNEN ibilaldia. Ondoren dantzaldia LUHARTZ taldearen eskutik

## Abuztuak 15 Asteartea
### Amabirjinaren Eguna

**8:00etan:** DIANA mozkorrenekin.
**11:00etan:** Meza Nagusia.
Ondotik txistulariak eta Zubietako joaldunak.
**12:30ean:** BERTSO SAIOA: Sebastian Lizaso eta Jexux Mari Irazu.
**Eguerdian:** AIZKORA APUSTUA.
**18:00etan:** dantza saioa EREINTZA taldearekin.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

## Abuztuak 16 Asteazkena
### Gazteen Eguna

**8:00etan:** DIANA mozkorrenekin.
**10:30ean:** herriko pilota txapelketako azken partidak. 3 eta 4 postuak eta finala.
Haurrek ere jokatuko dituzte partidak.
**18:00etan:** TORTILLA PATATA lehiaketa.
Ondotik tortilla jatea denentzat.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia KIÑU taldearekin.

## Abuztuak 17 Ortzeguna
### Haurren Eguna

**8:00etan:** DIANA mozkorrenekin.
**10:30ean:** Mus txapelketa Herriko Ostatuan.
**11:30ean:** DUATLOIA haurrentzat: Bizikletaz eta lasterka.
**16:00etan:** Haur Jokuak.
**18:00etan:** GORRITI bere abereekin.



Egunean zehar PUZGARRIAK.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia MODESTOrekin.

## Abuztuak 18 Ortzirala
### Herriaren Eguna

**8:00etan:** DIANA «gazte saltsan».
**11:30ean:** HERRI KIROLAK herritarrekin.
**14:30ean:** HERRI BAZKARIA estalpean. BEÑAT LIZASO, JOKIN URANGA eta MINISTRO. Ondoren BERTSO POTEOA.













ZUBIETAKO TAXIA
676 553 656
948 451 953


Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA


APARAN, S.A.
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE
















# LEKAROZ

## abuztuaren 23tik 27ra



*Artxibokoa*

Motozerra erakustaldia eginen da Gazteen Egunean, bazkariaren eta goiti-beheren jautsieraren ondotik.

### Abuztuak 23 Asteazkena Bezpera

21:00etan: Ezkil Jotzea.
21:30ean: Baztan zopak.
0:00etan: Dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeoilariarekin.

### Abuztuak 24 Ortzeguna San Bartolome Egune

10:00etan: Argi soinuak.
12:00etan: Meza Nagusia.
13:00etan: Haurren dantzak.
20:00etan: Orkestra eta Berbena.
22:00etan: Mutildantzak.
0:00etan: Orkestra eta Berbena.

### Abuztuak 25 Ortzileria Herriko Bazkarie

10:00etan: Argi soinuak.
12:00etan: Futbol partidua: Gazteak vs Zaharrak.
14:00etan: Herriko Bazkarie SALABERRIk alaiturik
20:00etan: TXUTXIN IBAÑEZ.
22:30ean: Gaita eta mutildantzak.
0:00etan: JALISKO BAND.

### Abuztuak 26 Launbeta Gazteen Egune

10:00etan: Argi soinuak.
14:00etan: Gazteen bazkarie.
17:00etan: Goitibeherak.
18:00etan: Motozerra erakustaldie.
20:30ean: TRIKIDANTZ.
22:00etan: Gaita eta mutildantzak.
0:00etan: TRIKIDANTZ.
4:30ean: JOXE MARI MIX.

### Abuztuak 27 Igendia Haurren Egune

10:00etan: Argi soinuak.
11:30ean: Haurren jokuek.
13:00etan: Haurren bazkarie.
16:00etan: Antzerkie.
18:00etan: Mus txapelketa.
20:30ean: MENDIBERRI.

# ARRAIOZ

## irailaren 1etik 4ra



### Irailak 1 Ortzileria

**12:00etan:** Altxaferoa, segiden txistulariek.
**14:00etan:** Haurrendako bazkarie (Zubiondoa ostatuen izena eman; hondar egune abuztuaren 27e).
**17:00etan:** Haurrendako jolasak.
**18:00etan:** Txokolatejatea.
**20:00etarik 21:30era:** Dantzaldie JOXE ANGELekin
**21:30ean:** Baztan-zopak (Txartelak Zubiondoa ostatuen; hartzeko hondar egune abuztuaren 25a)
**1:00etarik 4:30era:** Dantzaldie JOXE ANGELekin.



*Utzitako argazkiak*
Arraiozko gizon eta emakumeak dantzan karrikan, aspaldiko argazki batean. Beheitian, larunbat arratsean, gazteen afariaren ondotik, kontzertua eskainiko du Leihotikan taldeak.

### Irailak 2 Launbeta

**10:00etan:** Argi soinuek.
**16:00etan:** Plater-tiraketa Bagordin.
**20:00etatik 22:00etara:** Dantzaldie TRIKINDANTZekin.
**22:00etan:** Gazteen afarie (Txartelak Zubiondoa ostatuen; hartzeko hondar egune abuztuaren 25a).
**1:00etan:** Rock Kontzertua LEIHOTIKAN taldearekin. Segiden gaupasa TRIKINDANTZekin
**6:00etan:** Zinger jatea.

### Irailak 3 Igendia

**10:00etan:** Argi soinuek.
**12:00etan:** Meza Nagusie.
**18:00etan:** Arraiozko IX. Grand Prixe.
**20:00etan:** Dantzaldie.

### Irailak 4 Astelehena

**10:00etan:** Argi soinuek.
**14:30ean:** Herri-bazkarie (Txartelak Zubiondoa ostatuen; hartzeko hondar egune abuztuaren 25a).
**19:00etan:** Dantzaldie JOXE ANGELekin.
**22:00etan:** Herri Afarie.
**00:00etarik 4:00etara:** Dantzaldie JOXE ANGELekin eta besten akabaila.






























# GOIZUETA

## abuztuaren 13tik 19ra



### Abuztuak 13 Igandea
### Haurren Eguna

**9:00etan:** Diana, herriko txistularien bandarekin..
**11:00etan:** Herriko meza, haurrak bertako jantziekin joanen direlarik.
**12:00etan:** Pilota partiduak.
**17:00etan:** Herriko Plazan "SHOW DE GORRITI".
**18:30ean:** Umeentzako "berendua".
**19:00etan:** "ZURGAI" haurrentzako jokuak.
**20:00etatik 23:00etara:** Eusko diskoteka.

### Abuztuak 14 Astelehena
### Amabirjin Bezpera

**12:00etan:** Udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emango dien itxaferoa botako da. Ondoren trikitilarien banda eta, erraldoi eta buru-haundien konpartsa herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Txupinazo ondoren ETXERAT-en Txoznan Euskal Presoen aldeko brindisa egingo da.
**13:00etan:** Dj BULL dultzaineroekin gazte poteoa.
**14:30ean:** Gazte bazkaria.
**17:30ean:** Herriko gazte koadrilen arteko desafio xelebrea: Asto karrerak, Futbol partidua zezenakin…
**20:00ean:** Gazte txupinazoa gaztetxean.
**20:00ean:** Umore Ona peñaren irteera, "IGANDEA" txarangarekin
**0:00etan:** Gau pasa "TRAKETS" taldearekin eta ondoren "IGANDEA" Txaranga herriko kaleetan zehar.

### Abuztuak 15 Asteartea
### Amabirjinaren Eguna

**7:00etan:** Tolosako dultzaineroekin diana.
**8:00etan:** Entzierroa "LASTURKO" zezenekin.
**10:30ean:** Meza nagusia, segidan, Amabirjinarekin ohiko prozesioa.
**12:00etan:** UMORE-ONA dantza taldearen emanaldia herriko plazan.
**12:30ean:** Txistularien banda eta, erraldoi eta buru-haundien konpartsa herriko kaleetan barrena ibiliko dira.
**13:00etan:** HERRIKO PILOTA PLAZAREN INAUGURAZIOA. AIMAR OLAIZOLARI OMENALDIA. Ondoren lehenbiziko mailako afizionatuen arteko pilota partidu interesgarria. Ondoren IGANDEA txaranga herriko kaleetan zehar.
**18:00etan:** Zezenak Herriko Plazan.
**20:00etan:** Herri Kirolak plazan.
**22:00etan:** Euskal Presoen aldeko afari herrikoia Umore Ona Elkartean. Ondoren Euskal Presoen aldeko kalejira.
**0:00etan:** Dantzaldia "TRAKETS" taldearekin, ondoren "IGANDEA" Txaranga herriko kaleetan zehar.
**0:00etan:** Gaztetxean kontzertua: "KABUL" eta "TALDE SORPRESA"

### Abuztuak 16 Asteazkena

**11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era:** umeentzako gaztelu puzgarriak.
**12:30ean:** Afizionatu arteko pilota partiduak.
**16:30ean:** III Mus txapelketa Ixkibin.
**18:00etan:** Zezenak.





19:30ean: Bertso saioa herriko plazan: A.M. PEÑAGARIKANO, M. LUJANBIO, J.M..IRAZU, S. KOLINA.
0:00etan: Dantzaldia “LAIOTZ” taldearekin, ondoren “IGANDEA” Txaranga herriko kaleetan zehar.
0:00etan: Gaztetxean kontzertua: “SEXTY SEXERS”, “ORREAGA 778”.

## Abuztuak 17 Osteguna

7:00etan: Diana Dultzaineroekin.
8:00etan: Entzierroa “LASTURKO” zezenekin.
12:00etan: Txistularien banda eta, erraldoi eta buru-haundien konpartsa herriko kaleetan barrena ibiliko dira.
12:30ean: Eskuz binakako bi pilota partidu interesgarri, bat gazteen artekoa eta bestea lehendabiziko maileko afizionatuak.
18:00etan: Zezenak.
20:00etan: “VOCES NAVARRAS” Jotak Herriko plazan.
0:00etan: Dantzaldia "TRIKIDANTZ" taldearekin, ondoren “IGANDEA” Txaranga herriko kaleetan zehar.

## Abuztuak 18 Ostirala
## Ezkondu eta Umore Ona Peñaren Eguna

12:30ean: Bi pilota partidu interesgarri. Lehendabizikoan 4, 1/2aren barrenean: lehendabiziko maileko afizionatuak. Ondoren aspaldiko ohitura jarraituz, GOIZUETA ARANOren kontra.
15:00etan: Umore Ona Peñaren bazkaria, ondoren 5,00tak aldera “IGANDEA” Txarangarekin kalez kale ibiliko dira. Kalejira berezi hau bukatutakoan zezenak. Ondoren dantzaldia “JOSELU ANAYAK” taldearekin.
0:00etan: Dantzaldia “JOSELU ANAYAK” taldearekin. Ondoren “IGANDEA” Txarangarekin kalejira.

## Abuztuak 19 Larunbata

*(Udala eta Ikastolako tabernaren artean antolatutako jaia)*
12:00etan: Herriko Plazan, Gipuzkoa eta Nafarroako sagardoegile onenen partehartzearekin sagardo probaketa eta toka txapelketa.
17:30ean: KIKI, KOKO eta MOKO pailazoak herriko plazan.
18:30etan: Sorpresa.
19:00etatik 21:00etara: Umeentzako Tailerrak. Ondoren, bonba japoniarrak.


























# ARESO

## abuztuaren 14tik 18ra



### Abuztuak 14 Astelehena
### Amabirjin Bezpera

**12:00etan:** Etxafuegoa botako da pestei hasiera emanez. Ondoren kalejira egingo da herrian zehar herriko trikitilariekin eta txistulariekin. Baserrietan eskea egingo da ohitura zaharrei jarraituz.
**18:30ean:** Paella txapelketa herriko plazan.
**20:30ean:** Herri afaria plazan.
**23:30ean:** XVI. Mus txapelketa herrikoia.
**0:00etan:** Dantzaldia trikitilariekin.

### Abuztuak 15 Asteartea
### Amabirjinaren Eguna

**9:30ean:** Diana herriko txistulariekin.
**11:00etan:** Meza Nagusia, bertan udal ordezkariei lagunduaz herriko dantzariek arkua egingo dutelarik. Ondoren ohiko hamaiketakoa eskainiko du udalak plazan.
**12:00etan:** Herriko dantzarien emanaldia.
**13:00etan:** Pilota partiduak plazan. Olazabal - Iriarte; Onsalo - Razkin.
**18:30ean:** Herri kirolak: Joseba Olazabal soka tira txapelketa (polean). Bestelako herri kirol erakustaldi ezberdinak (aitzurra, aizkora…)
**20:00etan:** Dantzaldia JAIONE eta JONekin
**0:00etan:** Dantzaldia JAIONE eta JONekin.

### Abuztuak 16 Asteazkena
### Umeen Eguna

**9:00etan:** Diana herriko trikitilariekin.
**11:00etan:** Puzgarriak eta jokuak plazan.
**13:00etan:** Herriko gaztetxoen arteko pilota partiduak.
**16:00etan:** Plater tiraketa herrikoia Usoa elkarteak antolatuta.
**18:00etan:** Umeentzako joku tradizionalak
**19:00etan:** PATXIN ETA POTXIN pailazoen emanaldia.
**20:00etan:** Dantzaldia IMUNTZO ETA BELOKIrekin.
**21:30ean:** Herri aparia Guraso Elkarteak antolatuta.
**0:00etan:** Dantzaldia IMUNTZO ETA BELOKIrekin.

### Abuztuak 17 Osteguna

**9:30ean:** Diana herriko txistulariekin.
**12:00etan:** Ginkana berezi herrikoia.
**13:00etan:** Nesken arteko pala partidua.
**18:30ean:** Aizkolariak: Olasagasti- Redondo; Arrospide-Otaegi. Ondoren Aresoko ingurutxoa
**20:00etan:** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.
**0:00etan:** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

### Abuztuak 18 Ostirala

**9:30ean:** Diana herriko trikitilariekin.





Argazkiak: Jaione OLAZABALek utzia

**10:30ean:** Gosaria plazan eskean ibiliko direnentzat eta ondoren eskea herriko etxeetan. Goiz osoan zehar Aresoko txekorra erreko dute plazan.
**14:00etan:** Herri bazkaria plazan Pake Toki eta Larrea elkarteek antolatuta Jesus Mari Irazu eta Sebastian Lizaso bertsolariek alaituta.
**18:00etan:** Lau terdiko pelota partidua: Olazabal- Onsalo, Irazu eta Lizaso bertsolariak botilero hartuta.
**19:00etan:** III. Sagardo dastaketa, txistorra eta sardina erreekin. Bitartean III. Txapel jaurtiketa plazan.
**20:30ean:** Kapoeira erakustaldia.
**0:00etan:** Dantzaldia ABIBArekin.





































# NARBARTE

abuztuaren 19tik 23ra



## Abuztuak 19 larunbata
### Haurren Eguna

**12:00etan:** Suziriarekin eta ezkil jotzearekin bestei hasiera emanen zaie.
**15:00etan:** Herriko gazteak etxez-etxe joanen dira.
**21:00etan:** Herriko Ostatuan zopak zerbitzatuko dira.
**0:00etatik aurrera:** TRIKIDANTZ taldearekin gaupasa izanen da.

## Abuztuak 20 Igandea

**17:30ean:** Herri Kirolak izanen dira.
**20:00etan:** CHUCHIN IBANEZ eta JALISKOk plaza alaituko dute.
**0:00etatik aitzinera:** SALABERRI arituko da musika jotzen.

## Abuztuak 21 Astelehena
### Gazteen Eguna

**14:00etan:** Gazte bazkaria izango da.
**20:00etan:** SALABERRIrekin dantzaldia.
**0:00etatik aitzinera:** SALABERRI arituko da berriz ere.

## Abuztuak 22 Asteartea
### Haurren Eguna

**10:00etan:** Haur jokoak.
**17:00etan:** Mus txapelketa Herriko Ostatuan.
**18:00etan:** Haurrendako berendua.
**19:00etan:** Tortilla txapelketa.
**20:00etan:** SALABERRIrekin dantzaldia.
**0:00etatik aitzinera:** SALABERRI arituko da berriz ere.

## Abuztuak 23 Asteazkena
### San Felipe Benizio Eguna

**8:00etan:** Herriko emakumeek Aurorak kantatuko dituzte.
**11:00etan:** Meza nagusia San Feliperen ohorez.
**14:00etan:** Zikiro jatea AGERRALDEk alaitua.
**0:00etatik aitzinera:** AGERRALDE arituko da berriz ere.

Azken urteotako bestetan izan den motozerra erakustaldirik ez da aurten egitarauan. Hori bai, gazteak besta giroan murgilduko dira, garai bateko gazteak bezalaxe. Ondoan ageri den 1957. urteko argazkian, Joxe Mari kordionista; Bittoriano Urroz, Salvador Agirre, Martin Sarratea, Joaquin Sarratea eta Fulgencio Ibargarai ageri dira.













LABE ZAR


Ark b
arkitektura bulegoa




MARTIKO
Martikorekin
zu zeu
sukaldari.


PRIM, c.b.













# LEGASA

## abuztuaren 25etik 29ra





### Abuztuak 25 Ortzirala

**17:30ean:** Gazte eta helduen arteko betiko jokuak.
**20:00etan:** Altxaferoa Txarangak alaitua.
**21:00etan:** Zopak.
**23:30ean:** JO TTAKUN Txalaparta eta perkusio taldea.
**0:00etan:** TRIKIDANTZ.

### Abuztuak 26 Larunbata

**10:00etan:** Argi soinuak.
**11:00etan:** Mus Txapelketa.
**17:00etan:** Puzgarriak.
**20:00etan:** KARMA dantza taldea
**Arratsaldez eta gauez:** dantzaldia KIÑU musika taldearekin.

### Abuztuak 27 Igandea

**10:00etan:** Argi soinuak.
**11:00etan:** Pilota Partidak.
**17:00etan:** Haurren ikuskizuna.
**18:30ean:** Aizkora apustua.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.
**20:00etan:** Gazte afaria.

### Abuztuak 28 Astelehena

**7:00etan:** Aurora.
**11:00etan:** Meza Nagusia.
**12:00etan:** Dantzak eta ondotik luntxa.
**17:00etan:** Haur Jokoak eta ondotik txokolatada.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzadia IBANekin.

### Abuztuak 29 Astear-



# Bidali ttipi-ttapa

## herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

& (+34) 948 635458

Grupo Tanatorio Taldea
**IRACHE**
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



# MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).

## 00-34

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
- **101.** Saldu
- **102.** Erosi
- **103.** Errentan emateko
- **104.** Errentan hartzeko
- **105.** Etxe konpartituak
- **106.** Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- **107.** Saldu
- **108.** Erosi
- **109.** Errentan emateko
- **110.** Errentan hartzeko
- **111.** Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- **112.** Saldu
- **113.** Erosi
- **114.** Errentan emateko
- **115.** Errentan hartzeko
- **116.** Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- **201.** Hargin/Igeltseroak
- **202.** Pintoreak
- **203.** Elektrizistak
- **204.** Iturginak
- **205.** Zurginak
- **206.** Mendi lanak
- **207.** Garraioak
- **208.** Bertzelakoak

**LANA**
- **301.** Eskariak
- **302.** Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- **401.** Eskaintzak
- **402.** Akademiak

**MOTORRA**
- **501.** Salerosketak
- **502.** Tailerrak

**ANIMALIAK**
- **601.** Emateko
- **602.** Salerosketak
- **603.** Klinikak

**DENETARIK**
- **701.** Galdu / aurkituak
- **702.** Salerosketak
- **703.** Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- **801.** Agurrak

**ADOS**

• **ELIZONDO.**
- Apartamentu eta pisuak salgai.
• **BIDASOA**
- Etxeak, borda eta baserria salgai.
• **DONEZTEBE.**
- Unifamiliarra 2.000 m²ko partzelarekin salgai.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
- 2. eskuko pisu erreformatua salgai. Aukera ona.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurrarekin salgai. Borda ura eta argiarekin.
• **BAZTAN.**
- Baserri, borda eta lur eremuak salgai.
• **PROMOZIO BERRIAK:**
• **NARBARTE.** 2 eta 3 gelako pisuak aparkaleku eta trasteroarekin salgai.
• **IGANTZI.** Pisu eta apartamentuak salgai.
• **ARIZKUN.**
- Nabe industrialen promozioa.

INFORMA ZAITEZ!
**948 451 841 / 948580705**
**www.ados-inmobiliaria.com**

ANZABAL
Santiago 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580804
anzabal@anzabal.com

**BAZTAN-BIDASOA**
Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.

**BAZTAN-BIDASOA**
Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**LEITZA.** Pisua salgai, 100 m², igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. % 699 461365.

## ETXEBIZITZAK
### 103 Errentan eman

**IRUÑA.** Pisu mobleztatua errentan emanen nuke, Unibertsitate Publikoaren ondoan. % 667 046452.

**DONEZTEBE.** Pisua errentan emanen nuke. Berria eta mobleztatua. % 669 675339.

**DONEZTEBE.** Pisua errentan ematen da, mobleztatua eta igogailuarekin. % 665 709848.

**IRUÑA.** Goroabe karrikan pisua errentan emanen nuke. 3 logela, Unbertsitate Publikoaren ondoan. % 630 045413 (15:00etatik aitzinera).

**ZUGARRAMURDI.** Pisua errentan ematen da abuztutik aurrera. Egoera onean eta leku lasaian. Konpartitua izan daiteke. % 667 354853.

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**BERA** inguruan pisua errentan hartuko nuke, garajearekin. % 629 971838.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan emateko Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak gordetzeko. % 948 630881.

**BAZTAN.** 140 m²ko nabe industriala errentan ematen da. % 647 773124 (ilunabarretan).

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Saldu

**LESAKA.** Bi etxe egiteko lur eremua, eraikitzeko baimenarekin salgai. Petrixeneko gainean. Pista hormigonatua, argindarra eta urarekin. % 948 637210 (20:00etatik aitzinera).

## LANA
### 301 Eskariak

**Esperientzia duen** mutil bat eskaintzen da herriko bestatan zerbitzatzeko. Euskalduna. % 600 730919.




**Gizona** eskaintzen da edozein lanerako, esperientzia duen txoferra C gida-baimenarekin. % 690 757814.

**Emakume euskalduna** eskaintzen da interna edo externa, zaharrak zaindu, sukalderako eta garbiketa lanetarako. % 635 204339 (19:00etatik 21:00etara).

**Emakumea** orduka lanean aritzeko prest, etxeko lanetan. % 670 571478.

**Gizona** eskaintzen da etxeko konponketak eta bertze edozein lan egiteko. % 948 450285.

## LANA
### 302 Eskaintzak

**Baztan-Bidasoan** arkitektu teknikoa behar da. % 676 509312.



**BERA.** Ibardinen lan egiteko kamarera behar da uztaila eta abuztuan. Frantsesa jakin behar da. % 948 631551.

**SUNBILLA.** Kanpineko jatetxean aritzeko langileak behar dira. % 948 450540.

**ELIZONDO.** Adatsa ileapaindegian pelukera bat be-



har da. % 948 452467.

**IRUN.** Neska bat behar da jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko. % 943 633557.

**DONEZTEBE.** Ostatu batean zerbitzaria behar da. % 948 450383.

**Ofizialak peoiak** behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Hilabetean 1.600 euro. % 948 199596.

**Anbulategiak.** Langileak behar dituzte sukaldean, garbiketan, plantxan. garbitokian. % 948 199596.

**Gidariak**. Astean 35 ordu betetzeko. Erakunde Publikoak. % 948 199596.

**Garbitzaileak.** Jangela, eskoletarako. Lanaldi jarraia. % 948 199596.

**Haurtzaindegiak.** Zaintzaileak eta hezitzaileak behar dira. % 948 199596.

**Diplomatuak** eta osasun teknikariak. Osakidetzan abudo sartzeko. % 948 199596.

**Sukalde laguntzaileak.** Ospitale eta ikastetxetarako lanpostu libreak. Informa zaitez. % 948 199596.

**Ofizialak.** Behar dira: pintoreak, mekanikoak, elektrizistak, zurginak, igeltseroak. Kontratu mugagabea. % 948 199596.

**Burlata.** Udaletxeak bete behar du: peoiak, garbitzaileak, gidariak, lorazainak, igeltseroak, atezainak, administrari laguntzaileak. % 948 199596.

**Nafarroako Gobernua.** Bete behar du administrari laguntzaile, zelari eta elbarri fisikoendako 41 lanpostu. % 948 199596.

## MOTORRA
## 501 Salerosketak

**Nissan Patrol** laburra salgai, NA-Z matrikuladuna. Txuri kolorekoa. % 948 631098 (arratsetan).

**Fiat Bravo** 1.8 GT salgai, 115 cv, beltza, NA-AX matrikula. Llantak, Clima, HI-FI. Prezioa: 3.600 euro. % 649 530501.

**Scooter motoa** salgai, Yamaha Jog RR markakoa. Egoera onean. % 679 214229.

**Partner** furgoneta salgai, gasoilekoa, 1998koa. Egoera onean. % 948 510737.

**Volkswagen Transporter** furgoneta salgai, NA-AV matrikuladuna, 9.000 euro. % 608 170013.

**Peugeot 406** familiarra salgai, NA-AT matrikuladuna. 190.000 km. % 670 471200.

**Suzuki Vitara** salgai. Egoera onean eta prezio interesgarrian. % 660 180376.

**Peugeot 406** Diesela salgai. Badu haize girotua. NA-AY matrikuladuna. % 948 635004.

## MOTORRA
## 502 Tailerrak







**TALLERES SANTESTEBAN**
% 948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)**
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

**ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK**
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

**MENDAUR MOTOR**
% 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**
Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Galloper 3-5 ate, Opel Frontera Sport, Opel Vectra, Renault Scenic 4x4, Terrano II 3-5 ate, Opel Agila eta Citroen Evasion 2.0 HDI.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

## ANIMALIAK
## 601 Emateko

**Ardi zakurkumeak** oparitzeko. % 637 990197.

## ANIMALIAK
## 602 Salerosketak

**Limusina** arrazako urte terdiko zekorra, zezenetarako. Ikusgarriak! % 686 476480.

## DENETARIK
## 701 Galdu-aurkituak

**BERA.** Berde kaki koloreko motxila galdu da San Miguel zubian. Barrenean agenda, anteojo graduatuak, giltzak, arropa eta termoa zituen. % 610 974262.

## DENETARIK
## 702 Salerosketak

Egoera onean dagoen **ostatuko tresneria** salgai: kafetera, kamara, ontzi garbigailua, izotz makina. Prezio interesgarria. % 667 708889.

**Solarium-a** salgai. Philips markakoa, 8 tubokoa, berria, erabili gabea. 300 euro. % 626 332322.

**HIRIGINTZA HITZARMENAREN HASIERA BATEZ ONESTEA**

Bera/Vera de Bidasoako Udalak, 2006ko ekainaren 6ko emandako ebazpenean, hasiera batez onetsi zuen 3. poligonoko 128. lur zatian elizbidea gaitzeko garatutako hirigintza hitzarmena, onartu ondoren Jesús Celayeta Aramendirekin sinatu beharrekoa.
Espedientea jendeaurrean izanen da hogei egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2006.06.13
ALKATEA
Helena Santesteban Guelbenzu

**Haurrentzako silleta** salgai: kuko, kapota eta silleta. Ia berria. Jané markakoa. Zakuak eta sonbrilla opari. 300 euro. % 626 332322.

**Gasezko sukaldea, hozkailua eta labadora** salgai, Corbero markakoak. Berriak daude, pisuz aldatzeagatik salgai. % 646 679217.

**Garajeko ate zabukaria** (abatiblea) salgai, bigarren eskukoa. Atea 234cm zabal eta 280 luze. Egitura osoak 280 luze eta 280 zabalera. % 948 451813.

# Hurrengo alea irailaren 7an

Urtero bezala, abuztuarekin batera, iraila bitarte agurtzeko tenorea aileg gu. Ale honetan, ohi dugunez, bestetako egitarauak eskuratu dizkizuegu, hemen inguruan gelditzen zaretenentzat.

Oporretan kanpora joan behar duzuenei, ongi pasatu eta ez galdu, irailaren berriro ere

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,29€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.info



**Eider Indaburu Loidi** etxalartarrak urtea eginen du abuztuaren 18an. Zorionak familiaren partetik.



**Orti Arotzena Portu** lesakarrak 2 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Aunitz urtez. Atta-ama, aitatxi-amatxi, aiton-amona eta osaba-izebak.



**Orti Arotzena Portu** lesakarrak 2 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Muxu haundi bat ttipi-ttapako nesken partetik. Etorri bixitan!



**Oier Mitxelena Arotzena** beratarrak abuztuaren 10ean 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta 6 muxu amatxiren partetik.



**June Apezteguia Etxebeste** sunbildarrak abuztuaren 7an 7 urte beteko ditu. Muxu handi bat familiaren eta berexiki Ibai eta Janiren partetik.



Sunbillako **June** eta **Irad**ik abuztuaren 7an eta 21ean urteak beteko dituzte. Mendeberriko familiaren partetikbesarkada eta muxu haundi bat.



Sunbillako **June** eta **Irad**ik abuztuaren 7an eta 21ean urteak beteko dituzte. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Ekiñe, Ainara eta Xabiren partetik.



**Josu Elizondo Goia** lesakarrak abuztuaren 15ean 6 urte beteko ditu. Zorionak atta, ama eta Xubanen partetik. Aupa gure pilotaria,



Munduko ATTONA hoberenari zure bost billoben partez bost milla muxu. Aunitz urtez attona (abuztuaren 17an). PILAR: Oraingoan guk egin beharko zaitugu pastela, eskerrikasko zure tarta goxoengatik eta ongi pasa eguna. Aunitz urtez (abuztuaren 21ean). Mendeberriko familia.



**Maddi Sese** beratarrak 14 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak eta muxuak atta, ama, Arantxa eta Josetxoren partetik. Ongi pasa eguna.



**Maddi Sese** beratarrak 14 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak zure koadrilaren partetik. Norentzako da muxu hori? Ongi pasa eguna. Aupa izng2k!



Abuztuaren 9an **Josetxo Sese Agara**k 4 urte beteko ditu. Animo arrantzale. Zorionak eta muxuak Pettar, Mañoli eta Argiren partetik.



**Josetxo Sese Agara**k abuztuaren 9an 4 urte beteko ditu. Animo futbolari! Zorionak eta muxuak familia eta bereziki Arantxa eta Maddiren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,29 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

**ttipi-ttapa**

Andutzeta, 12 • **31760 ETXALAR**

Urtebetetzeko argazkiak Internet-en ere

www.ttipi.net



Gazteluko **Joseba Telletxea**k abuztuaren 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak famili guztien partetik. Muxuak.



**Aimar Telletxea Galarregi** elizondarrak 7 urte beteko ditu abuztuaren 25ean. Aunitz urtez Xabier eta Enekoren partetik.



Zorionak Lesakako **Morroxkua** ri eta bere amautxi **Mertxe**ri, 2 eta 41 urte egin baitituzte abuztuaren 7an. Familia guziaren partetik, bereziki atatxi eta amatxiren partetik.



Sunbillako **Iradi Arretxea Otxandorena**k abuztuaren 21ean 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta 2 muxu handi familiaren partetik.



Zorionak! Aunitz urte gure muttiko bihurriari, abuztuaren 3an 2 urte beteko baittu, Muxu asko Zubietako **Aimar**entzat famili guztiaren partetik.



Uztailaren 12an urteak bete zituen **Attato**k Zorionak eta muxu handi bat amatxo eta Aimarren partetik, gure motoristari.



**Lorea Zozaia Agirre**k 2 urte beteko ditu abuztuaren 15ean. Aunitz urtez familia osoaren eta bereziki Javi, Maria eta Nerearen partetik.



**June Apezteguia** sunbildarrak 6 urte beteko ditu abuztuaren 7an. Muxu haundi bat Jaione, Jesus Mari eta berexiki Iradiren partetik.



**Hegoi Indabere Goienetxe**k 2 hilabete beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak familiaren partetik.



**Irati Fagoaga**k 6 urte eta **Katti Irastortza**k 5 urte beteko dituzte abuztuaren 16an. Zorionak familia eta lagunen partetik.



ETXARTE ERAIKUNTZAK



HURRENGO ETXE BIZITZEN ERAIKUNTZA LESAKAN!!!!
ONGI PASA BESTAK!!!!

Biurrana auzoa, Etxartenea · Tfnoa-Faxa: 948 637 709 · Mug: 608 770 850 · LESAKA



Ongi eginak diren gauzak gustoko ditugu

Laguntza eman nahi dugu:

- Lanpostuak sortuz
- Dauden elkarteak lagunduz
- Industrialdea sortzen lagunduz
- Industria ekimenak bultzatuz
- Kirola babestuz
- Zuen iritziak entzunez

MAGNA


frexka
zaitez gurekin!!
KULTURKARI
publizitatea zerbitzuak